



UEMA, Galtzaundi eta Kontseilua elkarlanean merkataritzan

ELKARLANA ▶ Alor horretan
elkarrekin lanean aritzeko
konpromisoa hartu dute

ZER? ▶ Txartelak eta agiriak
euskaratzen lagundu eta
hiztegia eskainiko diete

AGIRIA ▶ Bai Euskarari
Ziurtagiria eskualdean
hedatzen jarraituko dute ▶ 2

HITZA



**Alurr dantza
taldearen
asteburu
polita
Ezpeletan**

IBARRA ▶ Gauargi
nazioarteko jaialdian
«esperientzia
paregabea» bizitu
dute ▶ 6

TOLOSA ▶

**Gipuzkoako
4x50eko
marka jarri
dute igerin**

Tolosaldea IKTko
kideak izan dira ▶ 5

AMASA ▶

**Kultur Etxea
inauguratu
dute**

«Arazo handiak» izan
dira eta sei urte
pasatu ondoren aurki
jarriko da martxan ▶ 3

TOLOSA ▶

**Kolonbiako UIS taldeak musika eta dantza
uztartuko ditu bihar gauean Euskal Herria
plazan 22:30ean eskainiko duen emanaldian**

Herriko kultur baloreak eta interesa bultzatzen ditu taldeak; taldekideek
arbasoen ohituren eta folkloreaken inguruko ezagutza maila altua daukate ▶ 4

EUSKALGINTZA ▶

UEMA eta Galtzaundi Kontseiluarekin elkarlanean eskualdean

Merkataritza alorrean elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute, Bai Euskarari Ziurtagiriak hedatzen jarraitzeko



Asier Tejeria, Bakarxoa Arabolaza, Nora Olano eta Zigor Etxaburuia Irurako plazan. IMANOL GARCIA

I. GARCIA/J. SAIZAR

Joan den astean Udalerri Euskaldunen Makomunitateak (UEMA), Galtzaundi euskara taldeak eta Kontseiluak Tolosaldean elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten Irurako udaletxean egindako ekitaldian. Bai Euskarari Ziurtagiria merkataritza alorrean sustatzea adostu zuten hiru erakundeek.

UEMA Tolosaldeko 12 herri dira partaide: Aduna, Altxo, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain eta Oresa. «Herri horietan bizitza soziala euskaraz egitea du helburu UEMA eta horretarako hainbat lan burutzen ditu, merkataritza alorrean adibidez», azaldu zuten Bakarxoa Arabolaza UEMAko teknikariak. Dendari eta ostalariei euskara zerbitzua doan eskaintzen dietela erantsi zuten: txartelak, inprimakiak, idatziak, fakturak... itzultzeko eta hiztegi berezia emateko. Kontseiluak Galtzaundiren bidez jorratzen dituen Bai Euskarari Ziurtagiriarekin merkatariek hartutako konpromisoak betetzen laguntzen dutela esan zuten Arabola-

zak. «Elkarlanean arituta, merkataritza euskalduntzeko ahalginak emankorragoak izango dira», adierazi zuten UEMAko ordezkariak.

Merkataritza alorreko eskualdeko 80 entitatek Bai Euskarari Ziurtagiria lortu dutela gogorarazi zuten Zigor Etxaburuia Kontseiluko ordezkariak. Beste askok ere nolabaiteko konpromisoak hartu dituztela erantsi zuten. «Prozesu garrantzitsua euskararen normalizazioa lortzeko», bere hitzetan. «Bai Euskarari Ziurtagiria gizariteak euskararen normalizazioa lortzeko pausoak emateko bidea dugu», esan zuten. Euskararen aldeko «meurri eragin-korragoak» hartzen ari direla frogatzen omen du horrek eta ziurtagiria horren «aitortza publikoa» dela. «Urratsak ematen jarraitzeko» herritarren atxekimendua eta erakundeen arteko elkarlana behar dela erantsi zuten Etxaburuia. «Orain hiru erakundeen arteko elkarlana lehendik egiten genuen lana osatzera dator», esan zuten bukatzeko.

Galtzaundi Euskara Taldeak bost urte daramatza Tolosaldeko Euskalduntzeko Plan Estrategikoan (TEPE) lanean,

konpromisoen bidez euskararen normalizazioaren alde lanean. «Enpresak, dendak eta komertzioak konpromisoak hartzea eta ziurtagiriak eskuratzera animatzen ditugu. Elkarlan honek akordioa gauzatu eta zehaztu egiten du. Gure lanerako garrantzi handiko beste aurrerapauso bat da», aditzera eman zuten Asier Tejeria Galtzaundiko lehendakariak.

Harremanak aprobetxatuz

Akordio hauek gauzatzeko pauso zehatzez galdetuta, merkataritza alorreko entitateei bere zerbitzua eskainiko diela argitu zuten Nora Olano Galtzaundiko teknikariak. «Orain arte 80 batekin harremanetan gaude. Bai Euskarari Ziurtagiriaren informazioa zabaltzen diegu eta gure eskura dauden baliabideak eskaintzen dizkiegu, adibidez hiztegi bat badutela eta aprobetxatzeko esaten diegu», erantsi zuten. Harreman hori «aprobetxatu» eta interesa dutenek Galtzaundirekin «lanean hasteko» harremanetan jartzera gonbidatu zituen teknikariak.

Kontseiluaren arduradunak

BAKARTXO ARABOLAZA UEMA

«Elkarlanean arituta emankorragoak izango dira merkataritza euskalduntzeko ahalginak»

ZIGOR ETXABURUA KONTSEILUA

«Ziurtagiria gizariteak euskararen normalizazioa lortzeko pausoak emateko bidea dugu»

ASIER TEJERIA GALTZAUNDI

«Hiru entitateen arteko elkarlan hau gure lanerako garrantzi handiko beste aurrerapauso bat da»

esan zuten bere ordezkaria eskualdean Galtzaundi dela, bere zeregina lan hori ikuskatzea dela eta urtean behin egiten den ekitaldi publikoa antolatzen duela, «aitortza publiko» gisa. Tolosaldeko hiru udalek —Ibarra, Tolosa eta Villabona— plan berezi baten bidez merkataritza alorrean lehendik lan egiten dutela gogorarazi zuten Etxaburuia.

Ziurtagiriarekin, hasieran 30 entitatek besterik ez zutela esan zuten eta kopurua «goraka» dihoala. Orain ziurtagiria duten 80etatik 50 Tolosakoak direla eta beste herrietan presentzia hori «areagotu» egin behar dela erantsi zuten. «Horregatik hasi gara UEMAren lanean, kopuru horiek handitzeko», esan zuten. Euskararen erabilpenaren datuak merkataritza alorrean oraindik ez dituztela azaldu zuten.

Tolosaldea oso euskalduna izanda, nahiz eta zer egina egon, «aldeko jarrera positiboa» nabari dutela esan zuten Tejeriak, «benetako konpromisoa hartzeko borondatea» badagoela.

Dendariek bere alorra euskaratzeko aipatzen dituzten zailtasunez galdetuta, «ohitura falta» eta «erosotasuna» aipatu zuten teknikariak. «Kate bateko kide diren denda batzuk, janaridenda batzuk adibidez, kartelak gaztelaniaz bidaltzen dizkietela argudiatzen dute», esan zuten Arabolazak. «Fakturak eta horrelako gauza txikiak gaztelaniaz egitera ohituta daude. Batzuetan guk eskaintzen diegun aukera ez dute ezagutzen. Horretarako prestatu egin behar dira», erantsi zuten.

AMEZKETA ▶

Aurrera darrai Joxean Tolosa pilota txapelketak

Asteburuko partidetan denetatik izan da eskualdeko pilotarientzat

JULEN GOIKOETXEA

Jardunaldi berria izan du asteburuan Joxean Tolosa txapelketak. Ostirala eta igandea bitartean jokatu dira partida guztiak. Ostiral gauean hiru partida izan ziren Amezketa pilotalekuan. Bi kadeteen mailan jokatu ziren eta azkena nagusienean. Kadeteen lehenbizikoan, Yeregik 18 eta 9koaz irabazi zion Arandiari. Maila bereko beste partidaren berriz, Zelaik Berrueta hartu zuten menpean 18 eta 12koarekin. Azkenik, nagusietan, Beobide 18 eta 10ekoarekin nagusitu zitzaion Iñarrari.

Larubatari dagokionean, arratsaldean lau partida jokatu ziren. Kadeteetan eta gazteetan bana eta nagusien mailako bi. Kadeteetakoan Diazek 18 eta 9koarekin kanporatu zuten Artola altzotarra. Gazteetan, Garciak Azkarreri 18 eta 6 irabazi zion. Nagusien bi partidetan, bi burladarrek lortu zuten garaipena. Irabezburuk Alzola 18 eta 13koarekin kanporatu zuten eta gauza bera egin zuten Landiribarrek Belokirekin 18 eta 11koarekin.

Larunbat gauean beste lau partida izan ziren ikusgai. Kadeteetan Lezaun, Jaunarenari nagusitu zitzaion 18 eta 7. Ondoren, gazteen bi partidetan, Fernandezek amore eman behar izan zuten lehenengoan Senperena bidanararen aurrean 18 eta 8koaz. Bestean, Fernandezek ezin izan zuten Urrutia menperatu, 18 eta 13 galdu baitzuen. Azkenik nagusietan Aranzabe alkizarrak, Pikabea kanporatu zuten 18 eta 13koarekin.

Igandean, azken lau partidak jokatu ziren. Kadeteetan Zinkunegik Iriararren aurrean 18 eta 4 galdu zuten. Gazteetan, Portuk amore eman zuten Pinaren aurrean 18 eta 16. Gazteetan ere, Olano altzotarrak ezin izan Martinez lizartzarrekin eta 18 eta 11 galdu zuten. Azkenik nagusietan, Perezek Katalinaren aurrean 18 eta 15 galdu zuten.

AMASA ▶ KULTURA

Amasako Kultur Etxearen inaugurazioa egin dute

Sei urte ondoren eta «arazo handiak» tarteko aurki martxan jarriko da

IMANOL GARCIA

Amasako Kultur Etxearen inaugurazioa egin zuten pasatu den igandean. Bertan izan ziren udalbatzarraren ordezkariak, Bakartxo Tejeria alkatea buru zela, eta Kultur Etxeak barne hartuko duen Iturrigoxo taberna eta jatetxeko nagusi eta langileak. Zinta moztu eta dantzariaren agurra egin ondoren, hamaiketakoia jateko aukera izan zuten bertara bildutakoek.

Sei urtetako lanak eta gero martxan jarriko da aurki, azken ikutuak egin eta gero. Guztira 950.000 euroko aurrekontua izan du elizaren ondoan eginiko eraikin berriak. Bi solairu ditu Kultur Etxeak. Beheko Iturrigoxo taberna-jatetxea dago eta gela handi bat ekitaldi ezberdinak burutzeko: bilera handiak, hitzaldiak... Goiko solairuan haurrentzako liburutegi eta ludoteka bat daude eta gela bat bilerak egiteko.

«Arazo handiak izan dira



Inaugurazioaren une bat, dantzariaren saioa agintarien aurrean. HITZA

proiektu hau aurrera ateratzeko», azaldu dio HITZARI Bakartxo Tejeria alkateak. «Gure aurreko udal gobernua eman zion hasiera proiektuari eta legegaldi honetan hainbat arazo izan dira. Enpresa eraikitzaileak porrot egin zuen eta horrek gutzia atzeratu zuen. Gero be-

rriz atera genuen lehiaketa eta enpresa bakarra aurkeztu zen eta lanak asko luzatu dir. Guztira sei urte bete dira hasi zene-tik».

Bestalde, Iturrigoxoko taberna gaurtik martxan jartzea espero dute eta jatetxea datorren astetik aurrera.

Inaugurazio herritarra

Amasako herritar talde batek deia egiten du etzi egingo den inaugurazio herritarrera joateko. «Igandean ustekabeen Udalaren eskutik Amasako Kultur Etxearen inaugurazioa' deiturikoa egin zen» azaldu dute eta gaineratu: «Horren aurrean eta horrelako eraikuntzak zerbait gehiago merezi duela pentsatuz, inaugurazio herritar eta duina egitea erabaki da».

Horrela, etzi 20:00etan egingo da inaugurazio herritarra eta ondoren bertako jatetxean prestatutako afari herrikoian, euro batzuen truke, bilduko dira. Afaltzeko asmoa duenak, Kultur Etxeko atean aurkituko du izena emateko modua. Horretarako azken eguna bihar izango da. ◀

VILLABONA ▶ KIROLA

Behar-Zanako errebote taldeak ezin izan zuten txapela ekarri etxera

Billabonatarrek 13 eta 7 galdu zuten bigarren mailako Euskal Herriko Txapelketa Hiriburun

I. GARCIA

Ez zuten bere helburua lortu Behar-Zana elkarteko senior mailako errebote taldeak. Larunbatean zuten hizordua Baionatik gertu dagoen Hiriburu herrian. Bigarren mailako Euskal Herriko txapela zegoen jokoan eta azkenean billabonatarrek 13 eta 7 galdu zuten Donibane Garaziko Izarra taldearen aurka.

Liga hasi zenean ez zuten espero hain urrutira iristea, baina behin finalera iritsi eta gero, edozeinek bezala, irabaztea nahi izaten da. Ondo hasi ziren Behar-Zanakoak. Markagailuan aurretik jarri ziren eta bazirudien, Villabonan jokatu-

ko partidaren bezala, Behar-zanakoek irabazi egingo zutela neurketa. Baina gero beherakada etorri zen eta aurkariek beren joko ona atera zuten. «Besteak oso onak ziren», azaldu dio HITZARI Xabier Aiertzak, Behar-Zana taldeko jokalaria. «Ondo hasi ginen, baina gero ohikoak ez diren hutsegiteak egin genituen eta Izarrakoek ondo jokatu zuten».

Frontoiaren luzerak ere izan zuten zerikusirik lehian. «Villabonakoak 70 metro inguru ditu», dio Aiertzak, «eta Hiriburukoak 100 metro edo izango iritu. Gu ohituta gaude frontoi txikiagoan jokatzera eta besteak frontoi luzeagoan. Ligan Villabonan jokatu genuenpartiti-



Bi taldeak podioan; ezkerrean Behar-Zanakoak. HITZA

dak guk irabazi genuen, baina larunbatean frontoi luzean jokatzeko guri kalte egin zigun». 25 lagun ingururen babesa izan zuten jokalaririk billabonatarrek. «Zarata pixkat atera zuten eta portatu ziren», eskertzen du jokalaria.

Datorren urtean berriz arituko dira Behar-Zanakoak bigarren mailan eta Aiertzak gazteak animatu nahi ditu parte-hartzera: «Komeni da gazteak sartzea eta gure lekukoa hartzea».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Webgunean gai ezberdinei buruz zure iritzia emateko aukera duzu. Horieta batean Tolosan inauguratu berri den bidegorriari buruzko galdera egiten dizugu: zer iritzi duzu bere ibilbideari buruz? Sartu HITZAREN webgunean eta eman zure iritzia.

VILLABONA ▶

Gizonezko bat espetxeratua ustezko sexu-abusuengatik

ERREDAKZIOA

36 urteko gizonezko bat, G.W.M.G., atxilotu zuen Erztaintzak Villabonan 16 urteko neska bati ustezko sexu-abusuak egiteagatik, Herri-zaingo Saileko iturriek adierazi dutenez. Atzo, epailearen aurretik pasatu ondoren, Martuteneko espetxera eraman zuten.

Biktimaren amak jarri zuen salaketa bere bikotearen aurka. Dirudienez, ustezko abusatzaillearen eta biktimaren arteko harremanak aurreko udan hasi ziren, azken hau bere ama eta bikotearen Villabonako etxera bizitzera joan zenean. Salaketan adierazten denez, atxilotuak hasieratik ekin zion aieruei eta ikutze saiakeriei, ama lanean ari zen bitartean. Gero, batera bizitzera joateko promesekin eta beste lausengurekin harreman intimoak gauzatzera iritsi zen eta erregularki mantendu ditu atxilotu eta kartzeleratu duten arte.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita izango da bihar KZgunean

ERREDAKZIOA

Tutorea izango da bihar KZgunean 09:00etatik 13:00etara. *Fagor gida gastronomikoa* mintegia emango du 10:00etatik 11:00etara. Ohi denez, ez da beharrezkoa aldeztu aurretik izena ematea; nahikoa da bertaratzea egun berean.

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Fabada, estaldura eta aldamio montajearen aditua. Bere autoa duena. 620 800 186 Josebo.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

KULTURA ▶

Musika eta dantza uztartuz ariko dira bihar kolonbiarrak

Gau Giro programaren baitan, saioa eskainiko dute UIS taldekoek, Euskal Herria plazan, 22:30etik aurrera

IRATXE ETXEBESTE

Kolonbiatik etorrira, UIS, Santanderreko Industria Unibertsitateko Musika eta Dantza Folklorikoen taldeak emanaldia eskainiko du bihar herrian Gau Giro programaren baitan. «Gure herrialdearen aniztasun bera du gure taldeak; batetik eta bestetik etorritako jendeak errespetua diogu elkarri, eta hala ezagutu, ikasi, nahastu gara elkar». Kolonbiako musika eta dantza uztartzen dituen talde horrek dio haien herrialdeagatik eta haiengatik, «gure izpirituagatik», folklorea egiten dutela pauso bakoitzean: «Harrizko bide batetik goaz oinez, baina, zorionez, elkarri eskua emanez egiten dugu ibilian». Euskal Herria plazan eskainiko dute emanaldia, 22:30ean.

1975ean sortu zen Santanderreko Industria Unibertsitateko Musika eta Dantza Folklorikoen taldea, eta 1999az geroztik Christian Quijanok zuzentzen du. UIS taldea eta bere herrialdea, Colombia, nazio mailako ekitaldi askotan ordezkatu du Quijanok. UISeko partaideek haien herrialdearekiko begirunea bizirik dutela erakutsiz.

Taldeak helburu bera izan du hasieratik: kolonbiarrek hain maiteak dituzten herriko kultur baloreak eta interesa bultzatzea. «Eta horretarako,

gure historia komunitatearekin elkarlanean eraiki dugu, auzoetan eta herrietan, eta publiko anitzenarekin jardun eta konpartitu ahal izan dugun leku eta espazio bakoitzean». Kultura herrikoia ahanzten den gizarzte batean bizi direla uste dute Santanderreko Industria Unibertsitateko Musika eta Dantza Folklorikoen taldeko kideek, eta komunitate batean eta bestean eskaintzen dituzten ekitaldien bitartez hauxe helarazi nahi izaten dute: «Gure odolak ez du ahazten, lokar-tu egiten da soilik».

UIS «izateko espazioa» dela diote haren sustatzaileek: «gizakiago» izateko: «Etorrizko profesionalen taldeetako kide izan daitezen garatzen eta koordinatzen laguntzen dien bizitza esperientzia ematen die, zeren eta sozialak dira, gehienbat, gure bizitzak». Unibertsitate eskolak baliagarri zaizkie UISko kideei bizitzako hainbat esparrutan eskarmen-tu hartzeko. «Kolonbiako musikaren eta dantzen inguruko lanak gauzatzen ditu gure taldeak; horretarako folkloreaken elementu batzuk hartzen ditugu, eta iradokizunak egiten dituzte partaide guztiek landu beharreko koreografiaren eta musika piezen gainean».

Koreografia tradizionalak eskaintzen dituzte Kolonbiako dantzariak eszenatokian, bai-



Kolonbiako musika eta dantza taldeak bihar eskainiko du saioa. HITZA

na haiek egindako proposamenek ere badute leku emanaldietan, eta bakarka edo taldean landutako koreografiak ere tartekatzen dituztela iragarri dute UISko arduradunek dantza eta musika tradizionalenkin.

Talde anitza, ildo guztietan

«Departamentu, eskola eta erlijio ezberdinetatik datozen ikasleak biltzen dira Santanderreko Industria Unibertsitatean; guztiak ere, arbasoen ohi-turen eta folkloreaken inguruko ezagutza maila altua dute-nak. Hori dela-eta sortu zen Santanderreko Industria Unibertsitateko Musika eta Dantza Folklorikoen taldea sortzeko ideia», esan dute UISeko ordezkariak. Herrialdeko lurralde bakoitzeko dantza eta aire tipikoen ikerketa, praktika eta hedatze prozesuak ahalbidetu-ko zituen talde horrek, hala.

1976ko abenduaren 17an eskaini zuen taldeak jendaurreko lehen emanaldia Unibertsitate Komunitatean. Nicolás

Maestre Martinezen agindue-tara jardun zuen 40 gizon-ema-kumez osatutako ikasle talde-ak. Hiru lan taldez osatutako taldea da egun: dantzako bi eta musikako bat. Dantzakoa 20 la-gunek osatzen dute, eta beste 30 gazte daude prestatze bide-an. Musikari dagokionean, in-dar berezia eman diote orain arte musika afro-kolonbiarrari, eta beste hainbat mota ere ari dira lantzen.

Ikuskizun andana prestatu izan du UISek azken urteetan, eta mundu osoan eskaini ditu emanaldiak, batez ere nazio mailako eta nazioarteko jaialdi-etan. Horietan lortutako sari-riak ere makina bat izan dira, eta taldeko ordezkariak hitzetan, «gure amets kolektiboare-kin aurrera egiteko indarra eman digu horietako bakoit-zak».

Haien ikuskizuna ikustera biltzen diren herritarrei eman-go diete saria Kolonbiako dan-tzariek eta musikariek bihar-reko lehen emanaldia ikustea baita saririk ederrena.

EGITARUA ▶

Gau Giro programaren baitan, ekitaldi asko geratzen dira oraindik. Udan oporretara joan ez, eta herrian geratzen diren horiekin pentsatuta antolatu dituzte udal ordezkariak ekitaldi horiek guztiak. Hona hemen, iraila bitarte, herriko leku batean eta bestean izango direnak, banan-banan zehaztuta:

UZTAILAK 29

Musika Banda. Tolosako Musika Bandak aparteko kontzertua eskainiko du hilaren 29an, ostiralarekin. Euskal musika herrikoari eskainitako emanaldia izango omen da. Plaza Berrian ariko dira herriko musikariak, 22:30ean hasita.

ABUZTUAK 9

Zinema kalean. *Los chicos del coro* filma ikusteko aukera izango da egun horretan Amaroz auzoan. Zinema aire librean ikusteko parada eskaintzen du Udalak, 22:30etik aurrera.

ABUZTUAK 10

Zinema kalean. *El penalti mas largo del mundo* filma eskainiko dute Amaroz auzoan 22:30ean hasita.

ABUZTUAK 26

Julia Leon. Julia Leonek kontzertua eskainiko du egun horretan, Plaza Berrian. 22:30ean hasiko da, eta safardien musika entzuteko aukera eskainiko du.

IRAILAK 2

Tolosa Session. Tolosako hiru musikari ezagunek jazz emanaldia eskainiko dute Fronton kafetegian irailaren 2an, ostiralarekin. 22:30ean hasiko da kontzertua.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
L. p. 1.ª - 7.ª planta
20400 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Abaltzisketa.

Sei etxe abiki: sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Alkiza. Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m², 4.000 m²-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m², bi partzelatan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1.050 m²-ko bi solairuko eta 250 m²-ko tartelplanta duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresna eta hobekuntzekin

hornitua.

Beasain. 45 m² erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.

Berastegi. 100 m²-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m²-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.

Donostia. Saguesen, 70 m²-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m² erabilgarriko etxebizitza salgai

Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m²-tik hasita, 14.000 m² pabilioi salgai.

Tolosa. Lurre, 98 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera, igogailua, trasteleku eta garaje marrarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, erabat kanpoaldera.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskina egiten duen 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin.

Berritzeko premia.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa.

Kanpoaldera, igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, duplexa estreinatzeko.

Tolosa. Apattarrekian, duplex berritua, garajea eta lur-sailarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamenduak, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berritutako etxebizitza salgai.

Tolosa. Agintari kalean, berritutako apartamentua salgai. Bizitzera sartzeko prest.

Tolosa. Nafarroa etorbidean, 120 m²-ko etxebizitza berritua salgai.

LANA ▶

Igeriketa
monitoreak
Usabalerako

Usabal kirol eta aisialdigune berria kudeatuko duen Kirol-zer enpresak lanpostu deialdia egin berri du: hain zuzen ere, Usabalerako igeriketa monitoreak eskatzen ditu. Baldintza hauek bete behar dira: ur sorosle titulua eta igeriketa monitore titulua izatea, eta aretoko arriketak (aerobik, gimnastika, muskulazioa...) zuzentzeko gai izatea. Kurrikuluma abuztuaren 25a baino lehen aurkeztu behar da Villabonako kiroldegian (Kale Nagusia, 72), edo villabona@serdepor_kirol-zer helbide elektronikora bidali. 943 69 43 33 telefono zenbakira deituta jaso daiteke informazio gehiago.

OHARRA ▶

Tolargi-k argindar
mozketak egingo
ditu gaur

Subestazio berriaren egiaztapen lanak direla eta, Tolargi-k argindar mozketak egingo ditu gaur. Bezeroak ordu-betez izango dira argirik gabe, 23:00etatik 24:00etara, hain zuzen ere. Gero, normaltasunez jarraituko du zerbitzuak.

KIROLA ▶

Elkarteen diru
laguntza eskaera
epea, zabalik

Kirol elkarten eta klubaren egiturak garatzeko diru-laguntza arruntak eskatzeko epea hilaren 31n amaituko dela gogoratu du Udalak. Eskera egin nahi dituztenek udaltekoko erregistrora jo behar dute.

PALA ▶

Tolosa CFren Pala
Txapelketan hiru
partida, gaur

Azken txanpara iristen ari da Tolosa CF antolatutako Pala Txapelketa. Gaur, hiru partida izango dira ikusgai Beraz-biko frontoian, 18:30etik aurrera: Landa-Huegunek Lankuntza-Agote izango dute aurkari lehenik, Lontxo-Nazabalek Sarasua-Txapartegi, eta, azkenik, Eizmendi-Arandiak Bengoa-Bengoetxea

IGERIKETA ▶

4x50eko Gipuzkoako
marka ezarri du
Tolosaldea IKT-k

Gipuzkoako Txapelketan lortu dute errekorra Jon Azpiazu, Ibai Pagolak, Ander Aldalurrek eta Imanol Goenagak



Aldalur, Pagola, Azpiazu eta Goenaga, 4x50 erreleboetan marka ezarri zuten laukotea. HITZA

LEIRE MONTES

4x50eko Gipuzkoako marka ezarri berri du Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak (IKT), Ordizian jokaturako absolutu, etorkizuneko eta junior mailetako Gipuzkoako Txapelketan. Jon Azpiazu, Ibai Pagola, Ander Aldalur eta Imanol Goenaga igerilariak bikain burutu zuten erreleboetako proba, eta lehendabiziko Gipuzkoako errekorra eman diote, hala, taldeari, 1:37:54 denborarekin.

Pozik dira Tolosaldea IKT-koak igerilariak egindako lanarekin: «Ja azkeneko unera arte atzean zihoan taldea, baina Imanol Goenagak 24 segundo jaitsi zituen 50 metroan, eta Donostiako Fortuna taldeari aurrea hartu zion. Lasterketa ikusgarria egin zuten laukoteak».

Gutzira, 35 igerilari ordezkatu zuten Tolosaldea IKT Gipuzkoako Txapelketan, 15 eta 20 urte bitarteko 13 neska eta 22 mutil, hain zuzen ere. Bakar-kako lanetan ere «primeran» aritu ziren: «Egin duten prestaketa fruituak jasotzen ari dira pixkanaka-pixkanaka».

Besteak beste, Jon Azpiazu-oren (88) lana goraiatu dute

taldeko arduradunek. Abuztuaren Calellan (Katalunia) jokatu den Espainiako Txapelketarako beharrezko gutxienekoak lortu zituen 100 metro libre eta 50 metro brazza probetan, 55.06 eta 31.68 denborekin, hurrenez hurren. «Izugarrizko maila erakutsi zuten txapelketa osoan. Sasoiko dago, eta ondo prestatu behar du orain Espainiako Txapelketarako. Kalitate handiko igerilaria da, eta oraindik asko eman dezake».

Loreto Azurzaentzat (88) ere laudorioak dituzte taldeko ordezkariak: «Mottibazio handiz aritu zen Ordizian, denbora bikaina egin zuten, eta duen

maila erakutsi zuten». Azurzak ere Espainiako Txapelketan aritzeko gutxieneko denbora lortu zuten, 4x100eko proban, 59.79 denborarekin.

Eider Etxartek (88) txalo zaparrada luzea jaso zuten 200 metro bizkar proba amaiztean. «Inork ez zuten espero egin zuten marka lortuko zuenik, 2.24.85. Erraz gainditu zuten Espainiako Txapelketarako gutxienekoa, eta han ere kalitate handiko igerilaria dela erakutsi ahal izango du».

Iraia Privado (89), Ander Aldalur (87), Iraitz Arrospeide (88), Maria Longarte (89), Oier Ibarbia (89), Unai Cossio (89)

eta Aritz Lopez (87) igerilariak egindako lana ere txalotu dute Tolosaldea IKT-koek. Gutxiatik ez zituzten beharrezko gutxienekoak lortu. Beste guztiak egindako lana ere ez dute ahaztu nahi: «Ilusio handiz aritu ziren guztiak, eta egindako lanak eragina izan du taldeak lortutako emaitza onetan».

Gipuzkoako 2., taldeka

Tolosaldea IKT Gipuzkoako bigarren taldea da egun, Bidasoaren atzetik eta Fortunaren aurretik. Urrezko 23 domina, zilarrrezko 29 eta brontzezko 31 jantzi zituzten eskualdeko igerilariak. Gipuzkoako txapeldun da taldea etorkizunekoetan, eta txapeldunordea absolutu eta junior mailan.

Txapelketan izandako giro onarekin ere kontent dira taldekoak: «Entrenatzaileen eta igerilarien arteko harremana gero eta sendoagoa da, eta oso pozik gaude. Hobetu, lehiatu, gogor lan egin, kirola egin, heldu, ikasi eta lagunak egin dugu guztiok helburu, eta hori guztia lortzeko lanean jarraitu nahi dugu, gogotsu. Zorionak parte hartu zenuten guztiei eta segi lanean!».

Oteiza, alebinetan

Alebin mailako Espainiako Txapelketan ere izan zuten ordezkariak Tolosaldea IKT-k: Itziar Oteizak (92) parte hartu zuten 100 eta 200 metro bizkar probetan. Bero jasanezinari aurre egin behar izan zion igerilariak; «horregatik eta urduritasunagatik ez zen espero bezala aritu. Hala ere, badakigu etorkizun handiko igerilaria dela».

Hala, lortutako hamabigarren postua «oso ontzat» jo dute taldeko arduradunek: «Kontsolazio finalera sailkatu zen bi probetan, eta emaitza txukunak lortu zituen. Alebin mailan, nesketan, parekotasun handia dago, eta zaila da goiko postuetan sailkatzea. Lortutagogatik zoriandu behar dugu Itziar, eta egin duen lan guztiagatik txalotu».

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, dendak, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

IBARRA ▶ KULTURA

Asteburu polita igaro du Alurr dantza taldeak Ezpeletan

«Esperientzia paregabea» izan dute eta errepikatzeko gogoz itzuli dira

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den asteburuan Gauargi dantza jaialdia egin dute Ezpeletan (Lapurdi), eta Ibarra Alurr dantza taldea ere bertan izan da. Munduko dantza tradizionalak gaztetxo taldeen bidez ezagutaraztea, elkar topatzea eta kulturak trukatzeko helburu duen jaialdia da Gauargi eta 1996. urtean sortu zen Kanbon. Pasa den urtetik ekitaldiak Ezpeletan egitea erabaki zuten.

Ibarra-koekin batera Ezpeletako Espela taldea, Hendaiako Gurea, Irungo Eraiki eta Esquiulako Eskuilarra taldea aritu dira. Eta nazioartetik, berriz, Moldaviako Fantazie taldea, Armeniako Aravot Hayastan eta Mexikoko Tonalli Ambar izan dira. Denera, 9 eta 15 urte bitarteko berrehun gaztetxo inguru bildu dira Ezpeletan.

Ibarra-koekin kasuan, Edu Muruamendiaraz dantza irakaslearen taldeetako 12, 13 eta 14 urteko 12 neska eta mutiko bat izan dira. Ostiralean ailegatu ziren, eta larunbatean izan zuten dantzarako aukera, Armenia, Mexiko, Moldavia eta Ezpeletako taldearekin batera. *Aguerra* eta Muruamendiarazek berak landuriko *Bazinen bazara*, *herri*, *Banako*, *Plazara*, eta *Obalooa* dantzatu zituzten. *Obalooa* azpimarratu dute Alurr-ekoek, «jendea asko gustatu» baizitzaion. Esperientzia paregabea izan da besteen dantzaz ikasi baitute eta adiskide berriak egin baitituzte. Ederki igaro dute, une paregabeak bizitu dituzte eta errepikatzeko gogoz bueltatu dira. Ibarra-ko udalaren izenean joandako kultur teknikariaren laguntza ere eskertu nahi izan dute besteren artean.



Paskual eta Sebastian, Gauargiko antolatzaileetako kideak, Alurr-eko dantzariekin. ALURR



Alurr dantza taldea, Mexikoko, Armeniako eta Moldaviako dantza taldeekin eskenatokian. ALURR

INKESTA ▶ Zer iruditu zaizue Gauargi dantza jaialdia?

MAIDER LOPETEGI



«Jende desberdina ezagutu dugu, eta beraien dantzak oso bereziak izan dira guretzat. Guk eskainitako dantzeekin gustura geratu naiz».

AINARA OTAMENDI



«Oso ondo pasatu dugu eta gustura errepikatuko nuke datorren urtean. Jendearekin izan dugun harremana azpimarratuko nuke».

IZARNE IGLESIAS



«Ezpeletakoak oso ondo portatu dira gurekin, oso jatorrak izan dira. Dantzei dagokionez oso politik ikusi ditugu, batez ere, Keniakoak».

OSKIA GOROSTIAGA



«Uste nuena baino hobea izan da jaialdia. Oso gustura egon naiz eta datorren urtean errepikatzea nahiko nuke».

MAIDER OTAEGI



«Asteburu polita izan da oso. Ikusi ditugun dantzak oso politik izan dira eta asko ikusi dugu horietan».

LEIRE MAKAZAGA



«Ezpeletako jendearen tratua oso ona izan da; oso jende jatorraren egin dugu topo bertan. Keniarren dantzak izan dira ikusgarrienak».

LAIANE DORRONSORO



«Bertako jendearekin oso ondo konpondu gara, eta lagun berriak egin ditugu. Guk Ibarra gonbidatu ditugu».

IURRE URREBIZKAIA



«Dena asko gustatu zait, jendea, jaialdia, dantzak... Oso gustura egon naiz eta errepikatzeko gogoz nago».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ASIER ARZALLUS GIL ▶ SASKIBALOILARIA

JAIONE ASTIBIA

Asier Arzallus Gil, 22 urteko leitzararra, TAU Ceramica-Baskonia saskibaloia taldeko jokalaria da, hegal-pibota, duela 6 urtez geroztik. 16 urte zituenean sartu zen talde horretan eta 18rekin hasi zen aurreneko taldearekin jokatzeko. Ligako aztoramenduetatik salbu, tantaia hainako gazte honekin solasean patxadaz aritzeko aukera izan du Hitzak.

Oporretan zaude .

Bai, ligako azken partidua, finala, ekainaren 26an jokatu genuenetik, abuztu hasiera arte edo. Orduan hasiko baita aurreboraldia edo.

Nola igarotzen dituzu zuk oporrak?

Denboraldia bukatu zenean, oporretara joan nintzen Mallorcara (Balearak) taldeko lagun batzuekin eta gero, sanferminetara buelta bat egin eta horrela. Urte guztia, entrenatzen aritu ondoren, lasai egotea dut gustuko, estresik gabe: Leitzan lagunekin egotea.

Edozein moduz merezitakoak. Zeren, zer denboraldia egin duzuen: bi final jokatu, ACBkoa eta Euroligakoa, eta Errege Kopa ere ia-ia. Hor ibilita, nola gelditzen da jokalaria?

Holako denboraldia eginda, zalantzarik gabe ligako talderik hobereana izan baita, finala azkeneko instantean galtzek... hara, amorrua eta inpotentzia ematen du. Denboraldia bai, halaxe pentsatzen dugu, oso ona egin dugula. Baina ligako finala hala galtzea, sekulan berriz ez da gertatuko horrelakorik! Azkeneko segundoan, halako zerbait gertatzea diot. Oso zaila da! Eta ez da oso gorpuzaldi ona gelditzen, egia esan.

Aurtengo denboraldian jokatzeo aukera izan duzu behin baino gehiagotan.

Urte guztian besteak bezala prestatu naiz. Ibilu. 2. taldearekin aritu naiz asko. Aurreboraldian eta bai, aurreneko taldearekin egin ditut partidua, eta ligan ere parte hartu dut, aldi batzutan. Gustura.

Nolakoak dira kideak, Scola eta... Askoren idolo zarete, kiroleko izar ere bai. Nola eramaten da hori? Jendeak gelditzen zaitu, zerbait esaten dizu?

Behin, telebistan atera ondoren, komentarioak izaten dira. Baina polita da jendeak ezagutu egiten zaituela oharretan. Nik ez daukat gainera, jenderik gainera, baina jendeak kasu egiten didanean eta, harro sentitzen naiz egiten dudanarengatik.



JAIONE ASTIBIA

«Seguruenik beste talde batera joanen naiz»

16 urterekin atera zen etxetik saskibaloian jokatzerara eta pixkanaka lortuta, bere gustuko kirola lanbide du

Herrian bertan saskibaloira-ko zaletasunik nabari duzu?

Bada, ni izan naiz lehenengoa honetara joaten eta lehen ez zegoen batere zaletasunik. Orain oharitzen naiz, telebistan eta gure partidua botatzen dituztenean eta, gehiago jarraitzen direla berri horiek, atera-ko ote naizen edo ez jakiteko eta ikusteko. Orduan lehen baino gehixeago badago.

Zu nola hasi zinen saskibaloian?

Aurrena egiten nuen kirola futbolaria zen, lagunekin eta. Baina altuera handia hartzen ari nintzen —2,04 metroko garaiera du— eta Tolosan hasi nintzen saskibaloian. Bi urtetara, 16 urte nituela, Gasteizkoek fitxatu ninduten eta gero eta gehiago gustatu eta hobeki ari nintzen jokatzeko, eta horrelaxe.

Eta pixkanaka, TAU jokalaritza profesionala?

Bai. Bi denboraldi egin nituen jubeniletan, 16, 17, 18 urte nituela. Eta gero senior egin nintzen geroztik, 2. eta aurreneko taldearekin.

Saskibaloiko jokalaritza profesionala izatea nola erabakitzen da?

Gustatuz. Ni 16 urterekin, ilusio handiz joan nintzen Gasteizera bizitzera, ikasi eta gainera, halako taldean aritzera! Jada 6 urte daramatzat han eta ohitu egiten zara: aurreneko urtetan gogorragoa zen, ikasi, autorik ere ez nuen, adinik ez bainuen, eta trenez ibiltzen nintzen, gehienetan Tolosara eta gurasoak joaten ziren bila eta bueltakoan berdin. Baina orain, oso gustura.

Saskibaloiaz gain ikasten edo ari zara?

Nire lana saskibaloian aritzea da, baina titulu bat ateratzen ari naiz, distantziara, gimnasio-

DI-DA BATEAN ▶

Leku bat? Usategietatik harunta ikusten den parajea.
Festa batzuk? Leitzakoak.
Aisialdian? Lagunekin egon, afari batzuk egin, eta ehiza garaian... ehiztari amorratua naiz.
Jaki bat? Mariskoa.
Edari bat? Sagardoa.
Gehien baloratzen duzuna? Leialtasuna.
Eta amorrarazten zaituena? Galtzek, edozein gauzatan.
Amets bat? Pozik bizitzea, berdin du non eta nola.

etako irakasle izateko. Baina patxadaz hartzen dut.

Nolakoak izaten da saskibaloilari baten egun bat.

Lan egun guztiak ez dira berdinak izaten. Dena partiduen arabera izaten da. Orokurrean, 10:00-12:00ak bitartean prestaketak izaten ditugu; du-txatu eta bat eta beste, 13:00ak aldera edo bazkaldu eta gero, 18:00etatik 20:00etara, berriz. Saioen aurretik elkartzeko gara. Baina partidu ondorengo egunean, atseden gehixeago izaten dugu igoal. Dena den, ni bi taldeekin aritu naizenez, entrenamendu saio batetik atera eta bestera joaten nintzen, azkeneko ordu asko, egia esan. Partiduak, berriz, ligakoak asteburutan izaten dira; Euroligakoak, asteregunez.

Erabat hara eta honera ibiltzen zarete. Bidaia baliatzen dituzue, beste herrialdeak ezagutzeko edo?

Bidaia abioiez egiten ditugu eta ez da deus ikusten. Gainera, hoteletik kantxara eta handik, berriz, aireportura. Euro-para joandakoan akaso gehixeago baina... Europako aireportu guztiak ezagutzen ditut ia-ia.

Sakrifizio hauek guztiak merezi dute?

Bai. Zuk gustuko duzun kirole-rik bizi zara, 8 ordu lanean ez dakit non ari beharrean... Alde positibo gehiago ditu zalantzarik gabe; gogobetetzen zaitu. Gainera ezin kezkatuko gara, bestela lagunek egurtuko naute...

Noiz hasiko zarete 2005-2006 denboraldiarekin?

Abuztuaren aurreneko erdialdera edo hasiko da.

Denboraldi berriari begira, zer asmo dituzu?

Bada, seguruenik beste talde batera joanen naiz, urte dezentetara daramat TAU eta.

Badakizu nora?

Eskaintza batzuk izan ditut eta hilabete honetan erabakiko dut nora jo. Edozein moduz, Euskal Herrian bertan edo Espainiara joanen naiz. Ea erabaki ona hartzen dudana.

ANOETA ▶

'Frida' bideo emanaldia gaur gauean Gaztetxean

Gaueko 22:30ean hasiko da; bihar mus txapelketa izango da uztailako ekitaldietan

ERREDAKZIOA

Aurrera jarraitzen dute Anoetako gazteek uztail honetarako prestatu dituzten ekitaldiak. Kirola, kultura eta bestelako ekitaldiekin egitarau oparoa osatu dute Gazte Asanbladako kideek.

Gaurko bideo emanaldia izango du. *Frida* film ezaguna proiektatuko dute Gaztetxean bertan, 22:30etatik aurrera.

Bihar, berriz mus txapelketa antolatuko dute. Hau ere Gaztetxean izango da, baina 23:00etatik aurrera. Bertara biltzera gonbidatzen dituzte herriko gazte guztiak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzararako autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. San Inazio jaien barruan uztailaren 29rako zikro jatea antolatu dute. Txartelak salgai daude Arandia jatetxean 18 eurotan.

Anoeta. Frida bideo emanaldia Gaztebaxen 22:30ean.

Tolosa. Paleta txapelketako partiduak 18:30ean Berazubín.

Tolosa. Tolargik argindar mozketak egingo ditu gaur 23:00etatik 24:00etara, subestazio berriaren egiztapan lanak direla eta.

Tolosa. Kirol elkarte eta klub egiturak garatzeko udal diru laguntza arruntak eskatzeko epea uztailaren 31n bukatzen da. Informazioa, udalwebko erregistroan.

Villabona. Santiotan, hilaren 28an, egingo den jubilatuen bazkarirako gonbidapena jaso daitezke Biltoki elkartearen, etzi arte.

IRTEERAK

Berastegi. Gaztainondo jubilatuei elkarteak biharko Calahorrara irteera antolatu du. Izena eman nahi duenak Gaztainondo elkartearen, edo 943 68 32 02 telefonoan.

Tolosa. Picos de Europa (Kantabria) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 23, 24 eta 25erako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5. 943 65 27 89).

Tolosa. Oargi mendi elkarteak mendi irteera eta arroila jaitziera antolatu ditu hilaren 22tik 25era bitartean. Informazio, 637 83 03 80 telefonoan.

Tolosa. Arantzazura peregrinazioa egingo dute hilaren 31n. Izen-ematea eta bazkarirako txartelak, San Frantzisko elizan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Elbebeste, J.M. Gernikako Arbola 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: agenda, HITZA, elkarrizketak, lehiaketa...
19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iriztien erantzukizunik.

Hasi da filmaketa

ZIZURKIL ▶ Astelehenean hasi zituzten 'Kutsidazu bidea, Ixabel' pelikularen filmaketa lanak Zizurkilgo Idarreta baserrian; zortzi astez ariko dira



Fernando Bernues zuzendariarekin aktoreei eszena azaltzen. I.TERRADILLOS



Makilaje gelan, zaurituriko oina irudikatuz. IÑIGO TERRADILLOS

JULEN GOIKOETXEA

Astelehenean ezagutu zuten elkar Juan Martin eta Ixabelek, egun horretan hasi baitziren filmatzen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* pelikula. Zizurkilgo Idarreta baserrian filmatu zuten lehendabiziko eszena, Juan Martin baserriaren iristen deneko, alegia.

Familiako kideen aurkezpenaren ondoren, Juan Martinek baserriko bizimodura ohitu beharko du, berehala lanean jarriko baitute amonak, aitak

eta bi bikiek. Horretaz gain, bere euskara maila hobetu nahi du protagonistak. Lehenengo egun horietan gainera, Ixabeletaz maiteminduko da, horrekin maitasunezko triangelua osatuko delarik.

Idarreta baserrian

Filmaren grabaketaren eraginez, erabat aldatua dago astelehenetik Zizurkilgo Idarreta baserria. Hori ondotxo asko daki Engrazi Idarretak, baserriko etxeandreak. Bakarrik

bizi da baserrian eta orain arte zuten lasaitasuna zapuztu du filmak. Jende gehiago bizi zenean ere, ez zela inoiz hainbeste mugimendurik egon baserrian azaldu du etxeo nagusiak.

70eko hamarkadako baserria dirudi. Hain zuzen ere, horrelakoa behar zuten grabatze-ko eta horregatik teknikariek ez dute ezer ukitu beharrik izan. Baina noski, guztia bere horretan ezin zen utzi; gela batzuk, ile apaindegi, jantzitegi, edota makilatze toki bihurtu

behar izan dituzte. Kamerak, argiak, klaketa soinua... benetak filmaketa estudio baten itxura du Idarretako barrualdeak.

Zineman historiako protagonistak soilik agertuko diren arren, jende asko ari da kameraren atzean lanean. Berrogei bat lagunez osaturiko lan taldea dabil goiz eta arratsalde Fernando Bernues eta Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean. Zortzi aste ariko dira lanean eta ondoren ikusi ahalko da emaitza pantaila handian.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaltxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!